

Euskal Telebista eta 1986ko azaroaren 30eko hauteskunde autonomikoen kanpaina

Carmelo Garitaonaindia
Jose Vicente Idoyaga
Jose Luis Ibañez

Kanpainaurrea: Kanpainarako bide latza

Eusko Alderdi Jeltzalearen krisiaren ondoren, hauteskunde-
etako kanpaina bereziki gogorra izan da. Komunikabide publi-
koen erabilerari buruzko disputak eta kritikak etengabeak izan
dira. Baina arazoa lehendik zetorren, udaren bukaeraz geroztik.
Telenortek Gasteizko Salburuako zelaietan ospatutako Alderdi
Egunari eman zion tratamendua zela eta, PNVk prentsan protes-
ta egin eta kontzentrazio bat konbokatu zuen TVEren Zentru
Erregionalaren aurrean. Hala ere, badirudi nazionalistak euskal
komunikabide publikoak kontrolatzen eta Estatuko komunikabi-
de publikoen gain presionatzen hasteko mobilizazioen sua Xa-
bier Arzallusek piztu zuela, PNVren Euskadi Buru Batzarreko
Lehendakariak. Izan ere, 1986ko urriaren 19an "El Espejo Mági-
co" izeneko artikulu bat idatzi zuen *Deia* egunkarian, politiko

nazionalista horrek larunbatero idatzi ohi duen orrian. Bere artikuluan honela zioen: "A todos nos causa desazón el que nos digan que nos manipulan, que nos influyen, que nos cambian nuestra forma de pensar. Pero es así especialmente desde el bombardeo diario de la TV (...). Lo que más cuenta es la imagen. La repetición de impactos puede llevar a la celebridad a cualquier *piernas*. Y puede deteriorar al hombre más válido". Bere artíkulu horretan, "El País Vasco en TVE en las elecciones de 1986" gaiari buruz Madrileko enpresa batek egindako lana komentatuz, beste honako hauek jasotzen zituen: "[Arzallus] es el más perjudicado por el trabajo técnico" eta "al mal tratamiento técnico de la imagen, hay que añadir que el presidente del PNV ha sido el político que en más ocasiones ha aparecido en pantalla en actitudes poco serias". Alderantziz, lan horretan esaten zenez, "el sector crítico del PNV ha tenido una buena imagen" eta Carlos Garaikoetxearen eta Marcos Vizcayaren kasuak aipatzen zituen, nola enkoadre zentraletan eta plano egokituetan azaltzen ziren, beti jarrera irribarretsu eta dialogatzailetan. Arzallusek gerra-deklarazio baten antzeko honako honekin bukatzen zuen: "Este es un capítulo más de la intervención de los medios controlados y manipulados por el Gobierno del PSOE en la famosa crisis del PNV. Mientras nos sonreían y nos aseguraban la más exquisita neutralidad y respeto, metían caña por donde podían, azuzando y dando aire a nuestros conflictos (...). Es hora de que nos vayamos cayendo del guindo y respondiendo con la contundencia que se merecen. En el momento oportuno".

Ordutik aurrera etengabeak izan dira telebista espainolaren kontrako salaketak eta politika nazionalistak Madrilekiko hartu duen jokabidearen puntu garrantzitsu bihurtu dira. Anasagasti Jn.ak, Espainiako Parlamentuan PNVren bozeramale eta RTVEren segimenduko batzordearen kide denak, azaroaren lehen asteetan telegrama bat baino gehiago bidali zizkion Pilar Miró Zuzendari Orokorriari, PSOEek eta Benegas Jn.ak TVE-n jasotzen zuten faborezko tratua salatuz; horietako batean, honela bukatzen zuen: "Estamos seriamente preocupados por el tratamiento partidista que da TVE a esta campaña a pesar de las expectativas de profesionalidad y objetividad que usted suscitó".

Aldi berean, euskal Komunikabide publikoetako kazetarien gain ere areagotu egingo zituen PNVk bere presioak: aste haientatsu, bi salaketa jaso ziren EITB-RTVVren Administrazio-Kontseiluaren aurrean, Euskadi Irratiaren lehen programako eta Euskal Telebistako langileen aldetiko oihartzun zabala jasoz. Urriaren 28an Bilboko Euskadi Irratiko ia langile guztiek, albistegetako buru guztiak ere barne, gutun bat bidali zioten Kontseiluari, bertan adieraziz nola "en las últimas semanas se vienen produciendo sobre los periodistas que elaboran los servicios informativos, orientaciones, indicaciones, sugerencias, órdenes, en definitiva, presiones tendentes a dar espacio preferente a las actividades del partido mayoritario (PNV) y las instituciones que detenta como partido. Estas presiones coinciden con la inusitada actividad que estas mismas instituciones vienen realizando en el terreno informativo. Sin una discusión precisa, ni la exhibición de criterios contrastados esta orientación y presión se concreta en: mayor predominio y presencia de información positiva de una concreta opción política, el PNV; marginación o escasa relevancia de otras noticias; secuencia de noticias que no corresponde al interés informativo".

Hiru egun geroago, ETBko Empresa-Komiteak eta langileek bat egingo zuten idazki horrekin eta tonu oraindik gogorragoan esaten zuten, nahi zutela "hacer llegar la más firme protesta, ante la presión, el dirigismo y control político que soportamos los trabajadores de ETB por parte de la Dirección de esta empresa". Gainera, zera salatzen zuten: "los tiempos que se están ofreciendo en los informativos a EAJ-PNV y a las instituciones que controla son desproporcionados. Esta actuación ha producido la marginación de diversas noticias que se producen día a día, la presión de la censura directa en un caso concreto y frecuentemente la obligación de cubrir sucesos sin importancia informativa".

EITBko Zuzendaritzak eta Administrazio-Kontseiluak langileen idatziei erantzunez bidaltzen zen ebazpen bat onartu zuten azaroaren 7an (PNV, PSOE eta CPren aldeko botuarekin; EA eta EEren kontrakoarekin). Besteren artean, honako hau esaten zuten: "sin perjuicio naturalmente del respeto a las Líneas Básicas

de Programación aprobadas por el Consejo de Administración, de entender que las intervenciones netamente electorales (mítines, campañas callejeras y análogas) de los legítimos representantes de las Instituciones públicas han de computarse dentro del concepto de actividad electoral de los partidos políticos, de que se desea asegurar una presencia de los partidos minoritarios y de los nuevos partidos en los Medios públicos y de que se tenga en cuenta en su caso lo noticiable, los espacios informativos que EITB dedique a la Campaña Electoral, se ajustarán a lo establecido por la Ley, es decir, al número de votos obtenidos en las anteriores elecciones equivalentes". Ebazpen horrek oso era bixian nahasten ditu, batetik, hauteskudetara aurkezten diren alderdiak komunikabideetan azaltzea eta, bestetik, Euskal Irrati eta Telebistaren Estatutuak talde sozial eta alderdi politiko errepresentatiboentzat jasotzen duen antena-eskubidea, Administrazio-Kontseiluak ezarritako erizpide objektiboen arabera, Zuzendari Orokorrekiko adostasunez eta kontutan izanik erakundee-tako ordezkari-tza-maila eta "cualesquiera otros criterios de representación sindical, y de interés social o cultural, que estime necesarios". Era berean garantizatzen da antena-eskubidea "para los grupos políticos, sociales y culturales de menor significación"¹. Bi gauzok elkarrekin zerikusi gutxi dute. Denbora normaltan, antena-eskubideak talde politiko, erlijioso, sozial eta kulturalentzat erizpide objektiboen arabera antolatu behar den sarbide libreari egiten dio erreferentzia. Hauteskundeetako informazio-saioek "informazioa" osatzen dute eta aukeren arteko orekaren erizpideak nagusitu behar du, ez bait litzateke zuzena komunikabide publikoek hauteskunde-eskaintzak desorekatzea. Kontseiluaren erabakiak ez du esplizituki aipatzen aurreagoko hauteskunde baliokideetan lortutako botuen araberako erizpide *proporzionalista* kontutan izan behar denik, eta hori funtsezko puntua da ebazpide hau zuzentzat ala ez-zuzentzat emateko orduan. Halakorik esaten ez bada ere, hori izan zen EITBko Zuzendaritzak inposatu zuen erizpidea. Gero ikusiko dugunez, doako espazioen banaketan proporzio-erizpideak mantentzen dituen arren, hauteskunde-lege organikoak zuzenketa-sail bat aplikatzen du gutxiengoa, parlamentarioa nahiz ez, osatzen dutenei gehiegizko kalterik ez egiteko.

Hasierako desorekak hauteskundeetako informazioan

1984eko otsailaren 26ko autonomi hauteskundeetako emaitzak, denbora-banaketak egiteko erreferentzi puntutzat hartu zirenak, honako hauek izan ziren: PNVk 32 eskainu (botuen % 42a), nahiz eta Legebiltzarra desegiteko mementuan horietako hamaika Eusko Alkartasunera pasata zeuden; PSOEk 19 eskainu (botuen % 23,07a), HBk 11 eskainu (% 14,65a); CPk 7 eskainu (% 9,36a); EEk 6 eskainu (% 7,97a)². Hala aitortzen ez bazen ere, hauteskundeetara aurkeztu ez ziren bi alderdiak, CDS eta EA, azken hau bereziki, baztertuta uzten saiatu ziren, egin zitekeen neurrian. Bi horiei buruzko informazioa eman behar zen bakoitzean, besterena ere derrigorrez gehitzen saiatzen ziren: inolako berririk ez zegoenean, alderdiko zuzendari bati deitzen zitzaion, deklarazioak eginez konpentsa zezan Garaikoe-txeari edo Vianari emandako denbora. Hauteskundeetako informazio-denborak alderdi politikoen artean banatzerakoan erizpide horiekin jokatzeak hain emaitza desberdinak ematen zituenez, kazetarien lanak orekatu behar izaten zituen minimoki behintzat desberdintasunak.

Euskadi Irratiko eta Euskal Telebistako hauteskunde-informazioaren denborak hauteskundeetako kanpainaurrean.

	Euskadi Irratia	Euskal Telebista
PNV	4 h. (% 35,5)	11' (% 30,56)
PSOE	2 h. (% 19,2)	8'10" (% 22,69)
HB	1 h. 2' (% 09,4)	4'20" (% 12,04)
CP	1 h. 1' (% 09,3)	1'32" (% 04,26)
EE	59' (% 09,0)	5'49" (% 16,16)
EA	56' (% 08,4)	4'26" (% 12,13)
CDS	20' (% 03,1)	—

Kanpainaurrea bitartean, ETBk hauteskunde-informazioaren emandako denbora osoaren ia hiruren bat bete zuen PNVk eta Euskadi Irratiak bere lehen programan emandakoarenaren hirurena baino gehiago. PNVren aldeko desproporzio horri, euskal erakundeei emandako ia bost ordu t'erdiko informazioa gehitu behar zaio, orduotan PNV bakarrik azaltzen bait zen. PSOEek, bere aldetik, hauteskunde-informazioaren bosten bat bete zuen gutxi gorabehera Euskal Irrati eta Telebistan. Estatuko erakundeei eskainitako beste lau ordu eta hiru laurden gehitu behar zaizkio denbora horri, PSOE bakarrik azaltzen zeneko orduak izanik.

Hauteskunde-informazioaren diskriminazio horrek eraginda, kanpaina hasteko bezperan, Garaikoetxea lehendakari-ohia, Eusko Legebiltzarreko lehendakari-ohia eta EAko kargu publiko guztiak Ajuria Enearen aurrean enkartelatu ziren, alderdi nazionalista berriak ETBn hartzen zuen tratu diskriminatzailearen kontra protesta egiteko. Izen handiko intelektualak jarri ziren protesta horren alde, hala Koldo Mitxelena eta Martin Ugalde, baina hauen presentzia isilpean pasa zuten euskal komunikabide publikoek. Jokaera hori deskalkifikatzeagatik, goizeko eta gaueko Teleberrietan bitik hirura bider denbora gehiago eman zioten PNVren Bizkaiko zerrenda-buru Iñigo Agirrerri eta CPren Arabako buru Barquerori. Agirrek esan zuen, protesta hori hauteskunde-muntaia bat zela eta hiru urte lehenagoko ETBren itxe-orduetako kareta hura zetorkiola burura, "cuando aparecía el exlehendakari Garaicoechea en toda su majestad a altas horas de la madrugada". Iñigo Agirre diputatuari ahaztu egin zitzaizkion xehetasun batzuk, adibidez: urte haietan EITBko Administrazio-Kontseilari zela bera; Eusko Alderdi Jeltzaleak zuela kontseilari gehiengoa, eta kontseilariok ez zutela kareta horien kritikarik planteatu inoiz, are gutxiago kareto kentea, erraz lor zezaketen gauza izanik. Agirrerren oroimena, berriz, Arzallusek berak aste batzuk lehenago *Deia*-n (1986.10.19) idatzitako beste hitzokin piztua zatekeen: "Ardanza no ha caído, afortunadamente, en el culto a la personalidad que suponían aquellas despedidas diarias, al cierre de emisión, de un Lehendakari imperial entre flamear de ikurriñas". Arzallusen eta Iñigo Agirrerren eritzi hauen ondotik, antzeko beste baieztapen asko etorri zen, kondena-zko errosario etengabea osatuz. Xabier Agirre PNVren bozeramaleak EFE Agentziari deklaratzan zionez, "[Garaikoetxeak] hace cinco años cerraba con su única imagen la programación de esta misma ETB, que ahora critica, adoptando, entonces, una

posición personalista como si fuera un presidente de república y monarca". Jose Maria Gorordok, EITBko zuzendariak, bestalde, COPEko Luis del Olmoren programan seinalatzen zuenez, "la imagen de Garaikoetxea cerraba todos los días la programación de ETB, algo que no sucede ahora con el lehendakari Ardanza". Hauteskunde-kanpainan sartuta, azaroaren 17an, "Dolor y vergüenza de Ajuria Enea" izenburuko *Deia*-ren editorial batek Garaikoetxea "protestante"tzat hartzen zuen, horren jokabidea "amo y señor" baten jokabidetzat jartzen zuen, "déspota y embaucador de masas" deitzen zion, eta, gainera, editorial horren arabera, "el verdadero gusano que logró pudrir una buena parte de la manzana peneuvista" izatera iritsi omen zen lehendakari-ohia. "En definitiva —jarraitzen zuen editorialak— Carlos [Garaikoetxea] aparecía, con el más puro estilo totalitario y franquista, envuelto en la simbología de su majestad".

Euskal K.A.ko Hauteskunde-Batzordeak banatu duen publizitate politikoa, antena-eskubidea eta doako espazioak

EITB-RTVVko Publizitate-arauek debekatu egiten dute publizitate politikoa eta ideia filosofikoak edo erlijiosoak ematen dituen, salbu lehenengoari buruz erabakitzen dena antena-eskubidean eta hauteskunde-kanpainetarako aurrirakosten den erregimen berezian³. Oro har Ente Publikoak arau hori errespetatu duen arren, izan dira infrakzio batzuk ere. "Radio Vitoria"k azken hauteskundeak arte alderdi guztietako brintza politikoak kontratatatu eta ematen zituen. Beren arauak ez betetzeko bilatu eta aitzakiatzat jarri zuten arrazoia, zera izan zen: emisora publiko horrek bazuela Eusko Jaurlaritzak hartu aurretik eta ondoren, bere programazioaren parte bat SERekin konektatua. Katea horren programazioarekin batera estatu mailako alderdiek kontratatutako propaganda zetorrenez, "Radio Vitoria"ri Euskal Herri mailako alderdiekin zuzeneko kontratuak egiten uzten ez bazitzaion, azken horiek baldintza okerragotan geratzen omen ziren kanpainarako. Debeku horren aurkako transgresio azkenekoa eta larriena Euskadi Irratian PNVren eta HBren brintzak ematea izango zen, 1986ko Urriaren 25ean ospatutako bi manifestazioetarako deia zabaldu bait zuten, Gasteizkoa bata, Lucio Aguinagalderen askatasunaren alde, eta Bilbokoa bestea, negoziazioaren alde.

Nahiz eta EITB-RTVVn propaganda politikoa debekatua da goen —RTVEn bezalaxe, bestalde—, informazioari dagokionez “Radio Televisión Vasca” Ente Publikoaren sorkuntzako legeak⁴ ezartzen du, beste gauzen artean, “berdintasun-printzipioari eta pluralismo politikoari” (3. art. a eta c) zor zaien begirunean oinarrituko direla komunikabide publikoak. Gainera euskal irrati eta telebistan azaltzeko eskubidea onartzen zaie talde sozial eta politikoei, Administrazio-Kontseiluak ezarritako erizpide objektiboen arabera. Kontseilu horri dagokion lana da talde sozial eta politikoei emandako programazio-portzentaiak erabakitzea, Komunitate Autonomoko gizartearen eta hizkuntza ofizialen pluralismoa errespetatuz (8.2 f art.). Debate parlamentarioak ematerakoan nahiz horiek diferituan zabaltzean emango zaien antena-denbora, Eusko Legebiltzarrean daukaten ordezkaritzaren proportzionala izango da (22.1 art.).

Hauteskunde-kanpainetan, gero ikusiko ditugun hauteskunde-arauek aurririkusten duten erregimen berezia aplikatzen da. Horren aplikazioa eta kontrola, Euskal Herriko Hauteskunde-Batzordeak eramango du, bere egitekoa Administrazio-Kontseiluaren eta Zuzendari Orokorren bitartez egikaritzuz (22.2 art.).

Hauteskunde-arau horiek, berriz, Eusko Legebiltzarraren hauteskunde-legeak⁵ eta Espainiako Parlamentuak onetsitako Hauteskunde-Erregimen Orokorreko lege organikoak osatzen dituzte gaur, goragoko lerruneko lege organikoa izanik bigarre-na⁶. Euskadiko Komunitate Autonomoko Hauteskunde-Batzordearen 1986ko urriaren 21eko ebazpen baten bidez, hauteskunde-kanpaina honetan aplikatzeko moduko legerari buruzko instrukzio bat onetsi zen, bi lege haiek bateratzen eta interpretatzen saiatuz eta kontraesanik gerta litekeen kasuetan lege organikoaren nagusitasuna seinatatzuz. Doako tartean banaketari buruz, honela dio ebazpen horrek: “Ante la conveniencia de utilizar idénticos criterios en la distribución de espacios de los distintos medios y dada la imposibilidad de armonizar las previsiones del artículo 77 de la Ley de Elecciones al Parlamento Vasco al de los Decretos que lo desarrollan, tal y como constan en su actual redacción, con el criterio de artículo 61 de la Ley Orgánica, la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma considera aplicable a las presentes elecciones el sistema de reparto de espacios incluido en el artículo 64 de la Ley Orgánica 5/1985, sin ninguna otra especificación”.

Artikulu honek denbora-baremo batzuk ezartzen ditu azken hauteskunde autonomikoetan ateratako botu-kopuruaren funtzioan eta baldin alderdi, federazio edo koalizioak hiru probintzietan aurkezten badira:

a) Hamarna minutu Euskal Herriko komunikabide publiko bakoitzean —Euskal Telebista, Euskal Herriko TVE, Eusko Irratia (Donostia), Eusko Irratia (Bilbo), Eusko Irratia-Radio Vitoria (Arabako emisioa), Radio Nacional de España (Euskal Herria) eta Radio Cadena Española (Euskal Herria)— 1984eko hauteskunde autonomikoetan aurkeztu ez ziren edo ordezkari-tza parlamentario-rik atera ez zuten nahiz, aterata ere, botuen % 5era iritsi ez ziren alderdi edo koalizioentzat. Kasu horretan aurkitzen ziren batera edo bestera: Eusko Alkartasuna, Centro Democrático y Social, Izquierda Unida, PCE-EPK, Coordinadora Socialista de Izquierdas, Partido Socialista de los Trabajadores, Partido Obrero Socialista Internacionalista, Unión Popular Republicana eta EMK.

b) Hogeina minutu aipatutako komunikabideetan, aurreko hauteskunde autonomikoetan ordezkari-tza parlamentarioa lortu zuten eta emandako botu balidoen % 5-20 bitartean ibili ziren alderdi eta koalizioentzat. Hau izan zen Herri Batasuna, Coalición Popular eta Euskadiko Ezkerraren kasua.

c) Hogeitamarna minutu, ordezkari-tza parlamentarioa eta emandako botuen % 20 baino gehiago atera zuten alderdi edo koalizioentzat. Hau zen PNV eta PSOEn kasua.

Hauteskunde-Batzordeak ETB eta Euskal Herriko TVE-n banatutako doako tarteen denbora

	ETB	TVE
PNV	30' (% 13,04)	30' (% 13,04)
PSOE	30' (% 13,04)	30' (% 13,04)
EA	10' (% 04,34)	10' (% 04,34)
HB	20' (% 08,69)	20' (% 08,69)
EE	20' (% 08,69)	20' (% 08,69)
CP	20' (% 08,69)	20' (% 08,69)
CDS	10' (% 04,34)	10' (% 04,34)
BESTEAK	90' (% 39,13)	90' (% 39,13)

Denborak orokorki jarri ditugun arren, benetan bostna minutuko spotetan ematen zen telebistan eta bete bostna minutuko brintzetan irrati publiko desberdinetan. Esan nahi da, "c" taldeko partidu batek bostna minutuko sei tarte izango zituela Komunitate Autonomoko telebista eta irrati publiko bakoitzean; "b" taldeko partidu batek lau tarte eta "a" taldeko batek bi tarte izango zituztela.

Manuel Ibarrondo Agirregabiriak, "Eusko Alkartasuna"ko kandidaturaren ordezkari orokorrak, errekurtsua tartejarri zuen doako tarteen banaketan alderdi horri bere presentzia instituzionalaren arabera aplikatu zitzaion eritziairen kontra "como grupo parlamentario vasco —debidamente constituido con antelación a la disolución del Parlamento Vasco— compuesto de once parlamentarios, sus propios grupos junteros tanto en la Diputación Foral de Guipúzcoa como en la de Alava, así como una importante presencia en Ayuntamientos a lo largo y ancho de todo el ámbito de la Comunidad Autónoma" eta Kataluniako 1984eko hauteskundeetako Coalición Popularrarekin eta 1985eko Azaroko hauteskunde galegoetako Coalición Galegarekin aurretik gertatutakoen arabera. Errekurtsu hori ez zen onartu. Ezta Josu Bergara PNVko ordezkariarena ere; honek zera alegatzen zuen: Komunikabideetako Azterketa Orokorraren arabera, TVE-1en entzulegoa % 76,1ekoa dela Komunitate Autonomo honetarako eta "que la neutralidad y el respeto al pluralismo dentro de esta campaña electoral es absolutamente imposible sin la debida colaboración de TVE y sin el oportuno control de la misma por la Junta Electoral"; ondorioz, doako tarteak RTVEko lehen kanalaren 20,30etako albistegian ere sartzea eskatzen zuen.

Hauteskunde-kanpainaren lehen aldia: azaroaren 14etik 18ra

Hauteskunde-kanpaina errekurtsu batekin hasi zen: Jose Maria Gorordo Zuzendari orokorrak eta ETBko Administrazio-Kontseiluak onetsitako erizpide proportzionalisten aurka, Euskal Telebista eta Bilboko Euskadi Irratiko langileek Komunitate Autonomoko Hauteskunde-Batzordearen aurrean jarritako

errekurtsoarekin. Euskal irrati publikoko kazetariak, zuzendari-tzak ezarritako erizpideen arabera alderdi bakoitzari emandako denboren zerrenda eman ondoren, beste hau gaineratzen zuten: "Estos tiempos no corresponden al interés intrínsecamente informativo, sino a la aplicación de los criterios que denunciamos. Y constituyen, a nuestro juicio, una vulneración de la neutralidad y el pluralismo que se pretende". Antzeko hitzak erabili zituzten ETBko langileek ere. EE eta EAk ere aurkeztu zuten erizpide horien kontrako errekurtsoa. Bestalde, azken hau izan zen kazetariaren errekurtsoaren bermatzaile, kazetariak ez bait dira Hauteskunde-Batzordearen aurrean errekurritzeko pertsona legitimatu. Batzorde horrek formalki gaitzetsi zuen errekurtsoa, baina zuzendu egin zuen Administrazio-Kontseiluaren akordioa, tarteko irtenbide bat ezarri. Kontseiluaren akordioaren lehen parte osoa ukitu gabe utzi zuen, baina beste klausula bat ezarri zuen, geratzen zen kanpaina-denboran funtsezko garrantzia izango zuena: "el tiempo dedicado a una opción política en ningún caso podrá ser superior al triple del dedicado a cualquier otra opción política".

Hurrengo egunean Administrazio-Kontseilua gustora azaldu zen, Hauteskunde-Batzordea ere berak emandako arauekin bat zetorrela eta. Hala ere, azaroaren 18rarte, berau barne, informazio-denboren erlazioa 1etik 2,37rako zen PNV eta PSOEn artean; 1etik 3,05erako PNV eta HBren artean; 1etik 4,73rako EArekiko; 1etik 4,57rako CPrekiko; 1etik 4,75erako EErekiko; eta 1etik 6,91rako CDSrekiko. ETBk onartuko ez zuen arren, oso nabarmenak ziren diferentziak eta ebazpen horren aplikazioak zuzenketa garrantzitsuak ekarriko zizkion Kontseiluaren hasierako akordioak sortutako desorekari.

Hauteskunde-informazio nazionalistaren beherakada kontsentsatzeko, ETBk gehitu egin zuen PNVren kargu publikoei eta honen kontrolpeko euskal erakundeei buruzko informazioa, eta kanpainaren bigarren aldian lehenengoan baino 16,43 puntu gehiagokoa izan zen. Behin, Ardanzak hilaren 18an Madrilen emandako prentsaurrekoa 14,30etako Teleberriko saioan bitan ematera iritsi ziren, aurrena minutu eta 21 segundotan sartuz informazio instituzional bezala, eta hauteskunde-informazio bezala ondoren, beste minutu eta 47 segundotan.

ETBko hauteskunde-informazioaren denbora-portzentaien eboluzioa, Hauteskunde-Batzordearen ebazpenaren aurretik eta ondoren.

	Azaroaren 14etik 18ra	Kanpaina osoan	Diferentzia
PNV	% 35,22	% 24,60	-10,62 puntu
PSOE	% 13,97	% 12,78	- 1,19 puntu
HB	% 12,54	% 13,50	+ 1,26 puntu
EA	% 6,60	% 9,43	+ 2,83 puntu
CP	% 7,60	% 9,65	+ 2,05 puntu
EE	% 9,22	% 9,65	+ 0,43 puntu
CDS	% 3,54	% 7,17	+ 3,63 puntu
BESTEAK	% 11,57	% 13,38	+ 1,81 puntu

Hauteskunde-Batzordeak bere erizpideak publikoan azaldu arte, albistegiak ez ziren PNVren berri instituzionalak emanez irekitzen normalean; data horretatik aurrera, ordea, Teleberrien erdiak baino gehiagotan hala gertatu zen. PNVren informazio instituzionala asko gehitu zen, hamar puntu baino gehiagoan, aurreko aldiarekin konparatuz, eta, kanpainaren azkenerako, azaldutako informazio instituzionalaren ia hirutik bikoia osatzen zuen.

Informazio instituzionalaren denbora-portzentaien eboluzioa, Hauteskunde-Batzordearen ebazpenaren aurretik eta ondoren.

	Azaroaren 14etik 18ra	Kanpaina osoan	Diferentzia
PNV	% 48,37	% 64,80	+16,43 puntu
PSOE	% 27,68	% 16,44	-11,24 puntu
HB	—	% 3,21	+ 3,21 puntu
EA	—	—	—
CP	% 22,31	% 12,35	-10,06 puntu
EE	% 0,30	% 2,25	+ 2,25 puntu
CDS	% 0,57	% 0,28	- 0,29 puntu
BESTEAK	% 0,74	% 0,47	- 0,27 puntu

ETB eta hauteskundeetako informazioa

Euskal Telebistak zortzi ordu eta laurden eman ditu hauteskunde-informazioan eta horren laurden bat PNVri eman dio. Atzetik HB (% 13,50) eta PSOE (% 12,78) joan dira. EA, EE eta CP alderdiek % 9,5aren inguruko denbora izan dute, denek berdin hamarrenen bat gorabehera. CDS izan da “zazpi handi”en artean hauteskunde-informazioko denbora gutxien izan duen alderdia: % 7,17a. Beste bederatzi kandidaturei, geratzen zen % 13,38a banatu zitzairen. Azken hauek ez dira batera azaldu eguneroko hauteskunde-informazioan —salbu bi aldiz Izquierda Unida eta PCE-EPK—, eta horien agerraldiak “Teleberri”ren ondoren egindako elkarrizketa labur batera mugatu dira eta, euskaraz hitz egiten zuen ordezkariaren bat zutenentzat, beste elkarrizketaren bat gainera “Gaur Egun”en.

Alderdi abertzaleek gaztelaniazko informazioaren gainetik beste puntu batzuk gehiagoko portzentaiak izan dituzte euskarazko hauteskunde-informazioan: PNVk + 4,15 puntu; HBk, + 1,6 p.; EAK, + 1,13 p.; EEk, + 2,12 p. Alderantziz, estatu-mailako alderdiek beste puntu batzuk gehiago izan dituzte gaztelaniazko hauteskunde-informazioaren portzentaietan: PSOEk, 1,72 puntu; CPk, 1,01 p.; CDSk, 4,05 p.

Gaztelaniazko hauteskunde-informazioa “Teleberri-1” albistegian eman da ETB-1en. ETBko bigarren kateak aurreko albistegia errepikatu besterik ez zuen egiten 21,00etan pasatuz eta irudirik gabeko beste informazio-zerbitzu labur bat ere sartuz, “Teleberri-2”. Albistegi horrek ez zuen hauteskundeetako bloke berezirik eta kanpainaren azken egunetan eguneko hauteskunde-gorabehereri buruzko iruzkin batekin irekitzen zen.

PNVri eskainitako tartek izan ziren, dudarik gabe, ondoen egindako eta muntatutako tartek, lautik bost minutura bitarteko iraupenarekin lehen egunetan eta hiru minutu t'erdikoarekin ondorengoetan; kandidatuek parte hartzeko modua ematen zuen horrek, bai elkarrizketa bidez eta bai mitinaren zati bat emanez. PSOERI edo HBRI buruzko informazioak ondo eginak zeuden, baina, beste alderdi politikoei bezala, horiei ere ematen zitzairen denbora laburrak ez zuen uzten kandidatuen zuzeneko ahotsez egindako muntaketarik ematen eta, beraz, galdu egiten zen mezuaren indar pertsuasiboa neurri handi batean. Kanpainaren lehen egunetan eskas samarrak izan ziren EE, EA, CP eta CDSri

buruzko hauteskunde-informazioen muntaketak; hurrengo egunetan hobetuz joan ziren besteen pareko mailara iritsi arte.

Alderdi politikoaren hauteskunde-informazioaren denbora eta porzentaia ETBn, TVE-Pais Vasco eta TVEn, azaroaren 30eko hauteskunde autonomikoen kanpaina bitartean.

	ETB (gaztel.)	ETB (eusk.)	ETB (guzt.)	Telenorte	TVE
PNV	69'50" (% 22,9)	65'45" (% 27,1)	135'45" (% 24,6)	17'37" (% 21,9)	61'11" (% 20,0)
PSOE	41'32" (% 13,6)	29'37" (% 11,9)	71'09" (% 12,7)	15'57" (% 19,8)	59'54" (% 19,6)
HB	39'15" (% 12,9)	35'12" (% 14,5)	74'27" (% 13,5)	11'10" (% 13,8)	39'39" (% 13,0)
EA	27'23" (% 9,0)	24'36" (% 10,1)	51'59" (% 9,4)	9'04" (% 11,2)	35'13" (% 11,5)
CP	30'22" (% 10,0)	21'47" (% 8,9)	52'09" (% 9,6)	9'57" (% 12,3)	38'49" (% 12,7)
EE	26'44" (% 8,8)	26'28" (% 10,9)	53'12" (% 9,6)	11'12" (% 13,9)	37'20" (% 12,2)
CDS	27'47" (% 9,0)	12'04" (% 4,9)	39'31" (% 7,1)	4'25" (% 5,5)	21'55" (% 7,2)
BESTEAK	45'57" (% 15,1)	27'48" (% 11,4)	73'45" (% 13,3)	1' (% 1,2)	10'57" (% 3,6)

Euskarazko hauteskunde-informazioa ia oso-osorik "Gaur Egun"en zehar eman da, ETBren 21,30etako albistegian zehar. Informazioaren tratamendua desberdina izan da indar politiko desberdinentzat. Ardanza zuzeneko mikrofonoz hitz egiten azaldu da hauteskunde-albistegi ia guztietan. Beste alderdien tartetean, ez zen entzuten hautagaien ahotsik, kazetariaren off ahotsko eskuharmena baizik. Gainera, lehendakariaren eta, inoiz edo behin, HBko militanteen eskuharmenak bakarrik eman dira euskaraz; Garaikoetxea, Pujana, Aulestia eta besterenak, berriz, ez ziren hala egiten. Salbuespenez, Alberto Egiguren sozialista eta Eusko Legebiltzarrerako hautagaiaren bi eskuharmen ere eman ziren euskaraz.

Jose Antonio Ardanza hautagai nazionalistari, mitinetako bere eskuharmenak emateaz gainera, elkarrizketak egin zaizkio behin baino gehiagotan. Horietako batzuetan harrigarria gertatzen zen kazetarisak lehendakariarekin azaltzen zuen familiartekotasuna. Azaroaren 22koa izan zen areena: egun horretako hauteskunde-informazioan PNVri eman zitzaizkion lau minutu eta laurdenetik, PNVko kandidatuak eta kazetarisak bi minutu t'erdia pasa zituzten futbolari buruzko solasaldi animatuan. Athletic-Español partidua ikustera joana izan Ardanza, eta atsedentartea mementu egokia iruditu zitzairen solasean aritzeko. Arratsalde

horretan bertan, okerrago ibili ziren PSE-PSOE, EE eta EA, hurrenez hurren 1'08", 54" eta 49"etako hauteskunde-informaziozko denborak izan bait zituzten.

Egindako muntaketak onargarriak izan dira oro har, nahiz eta edukina eta segimendua desberdinak izan diren. PNVri emandako informazio-tarteetan, xehetasunez jasotzen ziren haren kanpainako urrats guztiak: zahar-etxeetako bisitak, kirol-eremak, feriak, etab. HBren informazioak ondo eginak izan dira eta sarri asko haurren irudiak azaltzen zituzten; EEren hauteskunde-informazioetan ere gertatzen zen hori.

Hauteskunde-informazioaren blokearen ondoren, elkarriketa-sail bat egin zaie alderdi politiko desberdinetako ordezkariari. Parte hartzeko eskatzen zitzaizen baldintza bakarra, euskaraz hitz egitekoa izaten zen, lehendakariari izan ala ez. Saio horietan parte hartu ez duen alderdi bakarra CDS izan da, agian euskaraz hitz egingo zukeen hautagairik ez izateagatik. Beste kasuetan azaldu dira: Juan Jose Pujana (EA), Mario Onaindia (EE), Juan Carlos Ruiz (CP), Itziar Aizpurua (HB), Alberto Egiguren (PSOE) eta Jose Antonio Ardanza (PNV), eta ordezkari euskaldunen bat zeukaten beste kandidatura estraparlamentarioak, gainera. Aipatzekoa da lehendakariari batek bakarrik, Jose Antonio Ardanzak, parte hartu duela euskarazko elkarriketetan eta, aldiz, ETBko gaztelaniazko albistegietan azaltzera inor ez dela ukatu.

Informazio instituzionala eta alderdiei buruzko beste informazioak ETBn, hauteskunde-kanpaina bitartean

PNVk zuzentzen dituen erakundeei edo alderdi horretako beste karguei buruzko informazioak ordubete eta hamar minutu inguru bete ditu, informazio instituzional guztiaren ia hirutik bi. Informazio hori nabarmenki gehitu da, Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Hauteskunde-Batzordeak erabaki zuenetik, alderdi baten hauteskunde-informaziozko denbora luzeenak ezin-ago zuela izan gutxien azalduko zenaren denboraren hiru bider baino gehiago. Badirudi, PNVri dagokionez, mugakizun hori beste alde batetik konpentsatu nahi izan duela ETBk, eta informazio instituzionalaren denbora gehitu egin dio, 16,43 puntutan altxatuz. Euskal Herriko informazio instituzionala PNVk be-

reganatu du oso-osorik, nahiz eta diputazio bat badagoen EAren eskutan eta beste alkatetza asko —Gasteizkoa edo ibaiaren ezker-raldeko eta Goierriko herrietakoak bezain garrantzitsuak— EA, PSOE eta HBren eskutan.

Informazio instituzionalaren eta alderdi politikoen bestelako informazioaren denborak eta portzentaiak 1986ko azaroaren 30eko hauteskunde autonomikoetako kanpainan.

	ETB (gaztel.)	ETB (eusk.)	ETB (guztira)	Telenorte
PNV	51'05" (% 68,17)	18'16" (% 61,43)	69'21" (% 64,8)	2'45" (% 50,3)
PSOE	14'47" (% 19,72)	3'55" (% 13,17)	18'42" (% 16,4)	2'33" (% 46,4)
HB	1'10" (% 1,55)	1'27" (% 4,87)	2'37" (% 3,2)	—
EA	—	—	—	10" (% 3,04)
CP	6'19" (% 9,76)	4'32" (% 15,24)	10'51" (% 12,2)	
EE	9" (% 0,20)	1'17" (% 4,31)	1'26" (% 2,2)	
CDS	26" (% 0,57)	—	26" (% 0,2)	
BESTEAK	—	17" (% 0,95)	17" (% 0,4)	

PNVren informazio instituzionalak izan duen pisuaren adibide garbia ematen du azaroaren 25eko "Teleberri"k, zeinetan Euskal Komunitate Autonomoari buruzko bederatzi berrietatik bostetan azaldu bait ziren PNVko pertsonalitate eta leaderrak: Hezkuntzako Kontseilari Juan Churruca; Euskadi Buru Batzarreko lehendakari Xabier Arzallus eta eurodiputatu nazionalista Jon Gangoiti; Bilboko alkate José Luis Robles; Begoña Amunarriz (PNV); eta Jose Antonio Ardanza lehendakariagaia eta Luis Maria Bandres Kulturako Kontseilaria hogeitasei domina banatzen beste hainbeste euskal kirolariri Ajuria Enean. Gelditzen ziren lau berrietako beste batek ere kutsu instituzional nazionalista zuen: Eusko Jaurlaritzaren proiektu bat Orioko Portua birmoldatzeko.

Zuzenean informazio emateko ez ziren beste programa batzuetan ere Administrazioaren ikuspuntua sartu da, edo gauza bera den PNVrena (Gazteriaren Zuzendariaren kasua hilaren 21eko "Campos de Trabajo" dokumentalean, edo Ardanza lehendakariaren eta Bandres Kontseilariaren azalpenak hilaren

28ko "Gure Artea" dokumentalean). Gonbidatuen espazioetan, alderdiko eta administrazio autonomoko kide ezagunak azaldu dira nagusiki, edo ia eskusiboki. Agustin Herranz-en "Adivina quién viene esta noche" programan, Ramon Labayen Donostiako alkatea (azaroaren 16koan) eta Kulturako Kontseilaria eta Gazteriaren Zuzendaria (azaroaren 23koan) azaldu ziren hauteskunde-kanpaina bitartean egin ziren bi programetan. Kasurik muturrekoena, halere, hauteskunde-kanpaina ixteko bezperan Iñigok Ardanzari egin zion ia 27 minutuko elkarrizketa izan zen.

PSOEek 19 bat minutuko informazio instituzionala izan zuen, eta beti Madrileko Gobernuak iharduerekin erlacionatua. Gainera, kasu gehienetan, "laudorio" gehiegirik gabeko informazioak izan ziren, edo kritikazko kontrapuntu gogorrez lagunduak edo PNVko kargu publikoren batek erantzunak. PSOEn informazio instituzional hori 11,24 puntutan jaitzi zen Batzordearen aipatutako ebazpenaren ondorioz.

Alderdiei buruzko beste informazioa ez da instituzionala izan eta, oro har, informazio horri buruzko koadroan azaltzen diren denborak ikusita, pisu gutxi izan duela esan behar da. Coalición Popular-i buruzko informazioa da salbuespen bakarra, kanpainaren hasiera Ruiz Gallardón lehendakari-ordearen heriotzarekin batera gertatu bait zen, erreseinatutako denbora osoa betez.

Telenorte: denbora orekatuak handientzat, eta gosea txikientzat

TVEk, bere programazio erregionalean, diskriminatu egin ditu garbi-garbi bederatzi kandidatura "txikiak" "zazpi handi"en aldean. Hauen artean, berriz, oreka eta neutraltasun dezenteko politikarekin jokatu du. PNVk eta PSOEek hauteskunde-informazioko denbora berdin samarrak izan dituzte. Alderdi nazionalistari 17'37" (% 21,92) tokatu zaizkio eta alderdi sozialistari 15'57" (% 19,84). EE, HB, CP eta EArekiko diferentziak orekatuagoak izan dira, beren arteko denborak oso berdinak izanik. CDS izan da salbuespena, lau minutuz bakarrik azaldu bait da, Jesus Mari Vianak kanpainako hainbat mitin eta prentsaurrekotan salatu zuen bezala. Beste bederatzi kandidaturrek praktikan ez dute batere presentziarik izan TVEn. Puntu honetan, askoz ere hobeto portatu da ETB.

Hautagaiak ETBn eta TVEn

Ez da zehazten erraza, zein puntutaraino izan den kanpaina berez pertsonalizatua, ala, aldiz, ez ote duten kazetariak pertsonalizatu beren informazioa ematerakoan; batez ere denbora gutxien zeukaten alderdien informazioetan, hautagaiaren eskuharmenean zentratzen bait ziren ia eskusiboki, nahiz eta mitin eta bestelako ekintzetan pertsona gehiago ibili.

Minutu-kopuruari bakarrik begiratuz, TVEk alderdi guztientzat egindakoa izango zen kanpainarik pertsonalizatuena: lehendakariak batzuei emandako denboren eta horietako bakoitzaren alderdiari buruzko hauteskunde-informazioaren arteko diferentziak, eskasak izan dira. Ardanza/PNV erlazioa % 86,8koa izan da; Benegas/PSOE % 98,3koa; Garaikoetxea/EA % 77,7koa; Bandres/EE % 90,2koa; Guimón/CP % 68,4koa eta Viana/CDS % 95,2koa. TVEk hauteskunde-informazioei eskainitako denboren laburrarengatik emango zen beharbada erlazio estu hori: minutu t'erditik pasa gabe bi alderdi handientzat eta minutua, beste bost nagusientzat; horrek, muntaiak alderdietako hautagaiengan biltzera behartu ditu kazetariak. ETBk, aldiz, emisio-denbora luzeagoak zituen eta muntaia bariatuagoak egiteko aukera zuen, beraz: beste leader batzuek, jendarteko eszenak, etab. Inoiz ETBk bost minutu baino gehiago eman dizkio PNVri (adibidez, hilaren 15eko "Gaur Egun"en 5'46" eman zizkion eta 18ko "Te-leberri-1"en ia zazpi minutu, 6'56"). Horrek, noski, errealizazio bariatua eskatzen du, iraupen luzeko denbora hori irensteko modukoa.

TVEk leader politikoei emandako pantaila-denboraren banaketa (hauteskunde-informazioan, eta "Punto y aparte"ko elkarriketak kanpoan utziz) honelakoa izan zen: Txiki Benegas izan zen pantailan gehien egondako hautagaia (35 minutu eta 32 segundo, 63 alditan); ondoren Ardanzak jarraitu zion (30 minutu eta 32 segundo, 47 alditan); Garaikoetxeak 29 minutu eta 13 segundo izan zituen, baina bera izan zen aldi gehienetan azaldu zena (64 aldiz), beharbada TVEn parte hartu zuen EAKo hautagai bakarra izateagatik; Fragak denbora gehiago izan zuen (21 minutu eta 19 segundo) eta agerraldi gehiago Coalición Popularreko Julen Guimón lehendakariak baino (10 minutu eta 27 segundo 24 alditan). CDSko Chus Viana hautagaiaren denbora eta agerraldietatik (10 minutu, 32 alditan) oso hurbil ibili zen Adolfo Suárez bera ere. Esatekoa da, baita, TVEk lehenengo

aldiz eman zuela, azaroaren 26an, HBko zuzendari batekin, Iñaki Esnaolarekin, egindako zuzeneko elkarrizketa bat.

Lehendakarigaien azalpen-denbora ETBko gaztelaniazko eta euskarazko albistegietan.

	ETB (gaztel.)	ETB (eusk.)	ETB (guztira)
Ardanza	47'43" (% 28,69)	55'25" (% 56,20)	103'03" (% 42,44)
Txiki Benegas	29'49" (% 17,92)	12'11" (% 12,35)	42' (% 15,13)
Garaikoetxea	27'23" (% 16,46)	10'57" (% 11,10)	38'20" (% 13,78)
J. Guimón	16'09" (% 9,71)	3'02" (% 3,07)	19'11" (% 6,39)
J.M. Bandrés	23'53" (% 14,36)	10'38" (% 10,78)	34'31" (% 12,37)
Chus Viana	21'22" (% 12,84)	6'23" (% 6,47)	27'45" (% 9,65)

Lehendakarigaien azalpen-denbora "Telenorte" albistegian eta TVEko albistegi orokorretan.

	Telenorte	TVE
Ardanza	11'11" (% 25,42)	53'22" (% 21,62)
Txiki Benegas	13'07" (% 29,55)	58'41" (% 23,78)
Garaikoetxea	8'14" (% 18,55)	45'43" (% 18,52)
J. Guimón	2'54" (% 6,53)	26'50" (% 10,87)
J.M. Bandrés	7'33" (% 17,01)	41'40" (% 16,88)
Chus Viana	1'18" (% 2,92)	20'29" (% 8,30)

ETBn Ardanza izan da albistegietan azalpen-denbora gehien izan duena, beste guztien gainetiko diferentzia izugarriarekin. Euskarazko albistegietan, beste lehendakarigai guztiak batera baino pantaila-denbora gehiago izan du Ardanzak. Jose Antonio Ardanzak hainbat jenderekin banatu zuen bere telebista-denbora, Arzallusekin, Bizkaiko zerrendaburu Iñigo Agirrerekin, Bizkai Buru Batzarreko lehendakariarekin eta besterekin. Txiki Benegas dator ondoren, hautagai nazionalistak baino lau t'erdi bider gutxiagoko denborarekin, Garaikoetxea eta Bandresen

parean, esateko. Parekotasun hori izan liteke, beharbada, Bene-gasek bere pantaila-denbora García Damborenea eta Madriletik etorritako leaderrékin (Solana, Alfonso Guerra eta Felipe González berarekin) banatu behar izateagatik.

CDS eta CPko lehendakariagai asko murriztu zitzaizen telebista-denbora beren alderdietako leaderrekín banatu beharrez. Julen Guimon, bereziki, erabat itzalpean utzi zuen Fragak bere presentziarekin.

TVEn: parean PNV eta PSOE

TVEk, hauteskunde-kanpainari buruzko informazioetan, berdín jarri zituen PNV eta PSE-PSOE; bieí ia denbora berdina eman zien —% 20,06 eta % 19,64 hurrenez hurren—, hedapen nazionalako hiru telediaríoetan eta “Buenos días”eko blokeetan emandako albiste guztiak kontatuz gero.

TVEk bigarren tokian baloratu zituen beste lau indar: HB (% 13), CP (% 12,73), EE (% 12,24) eta EA (% 11,55). CDSri toki berezia eman zitzaion (% 7,19), bigarren taldekoen eta alderdi estraparlamentarioen artean, nahiz eta berez kategoria honetan egotea tokatzen zitzaion. Izquierda Unida eta PCE-EPKri, denboraren % 2,34 eta % 1,25 eman zitzaizen hurrenez hurren; biok izan ziren TVEk informatutako kandidatura estraparlamentario bakarrak.

Datu kuantitatibo hauez gainera, tratamendu teknikoak ere lagundu egin zuen PNV/PSOEren eta gainerako kandidaturen arteko desberdintasunak areagotzen. Jokabide desberdín horren adibide izan daitezke honako hauek: Ardanzaren irudia zer-nolako ederzaletasunarekin jokatuz eman zen, ur-baso batean ispilatuturik azalduz; Alfonso Guerra aireportura heldu zenekoa emateko erabili zen planoen ugaritasuna (abioiaren eskaileretatiko jaitziera bera ere emanez telediaríoaren bigarren emanaldian, hilaren 22an). Bestalde, argitasun tekniko negargarriko irudiak eman ziren: bereziki Julen Guimonenak, ezagutezina gertatuz argi-ezarengatik (hilaren 15a, TD-1); edo Xabier Arzallusenak, tonu berdetan bakarrik hartuta (15ean, TD-2); Suárezen irudi erabat desitxuratua (27an, TD-2); eta kanpainan zehar Garai-koetxeari lagundu zion komentariaren afoña kronikoa. TVEk

bikoiztu egin zuen hauteskunde-denbora 16 igandeko bigarren edizioan, egun bereko lehen edizioan botatako informea errepi-
katu egin bait zuen, ondoren TD-2ri zegokiona emanez.

¹ EITB-RTVV Ente Publikoaren sorkuntzako Legearen 21.2 art.

² Euskadiko Hauteskunde-Administrazioko Idazkaritzaren Txostena.

³ EITB-RTVVko Publizitate-Arauetako 1.3 art.

⁴ Maiatzaren 20ko 5/1982 Legea. EHAA 72, 1982ko ekainaren 2koa.

⁵ Azaroaren 25eko 28/1983 Legea. EHAA 182, 1983ko abenduaren 10ekoa.

⁶ Ekainaren 19ko 5/1985 Lege organikoa. BOE 147, 1985eko ekainaren 20koa.

Euskaratzailea: **Xanti Iruretagoiena**

C. G. - J. B. I. - J. L. I.